

noaua

**Ostiralean Sutegin:
'Soinujolearen semea'
filmaren proiektzioa**

**Txirikorda, belaunaldi
arteko auzolanaren
emaitza**

**Andatza Eguna,
iruditan**



**Tximeleta Taldea: "Urte osoan zehar eginiko lana
erakutsiko dugu asteburuan Oiardo kiroldegian"**

Udako ingeles intentsiboak

- Hizkuntza lantzeko, edo
- Cambridge azterketen prestakuntza
- Aste askeak, 4 egunekoak

Haurren taldeak

- Hizkuntza lantzeko, edo
- Antzerkia, jokuak, etab.
- Hamabostaldiak, egunero

JATORRIKO IRAKASLEAK
Maila eta adin guztiak



Summer!

INGELESA - Ekaina/Uztaila
eman izena lehen bait lehen!

686 499 775 (Toby) • tobyngana@hotmail.com • Alperroburu 2, Usurbil

ATE IREKIEN JARDUNALDIAK

ZATOK GU EZAGUTZERA!!

maiatzak 11 eta 18,
ordua: 11:00 edo
maiatzak 15, 18:00



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

www.lhusurbil.eus

ARRAUN-JARDUERAK ORIA IBAIAN

Ontzien alokairua
urte osoan zehar

Usurbilgo Txokoalde
auzotik Orioraino,
2,5 orduko jaitsiera
kaiakean.

Begiraleekin antolatutako
jarduerak

657 794 677

www.begi-bistan.com
info@begi-bistan.com

Albiste iruditzen

Manifestazioa, Ingemarreko kaleratzeen eta itxieraren aurrean

Ingemarreko zuzendaritzak iragarritakoa bete, eta martxoan hasieran aurkezturiko enplegu-erregulazio espedientea gauzatu du. Atalluko langileak kaleratu eta lantegia itxeko bidean jarri du. Aipatu espedientea iragarri zutenean greba mugagabeari ekin zioten langileek. Langileok kaleratzeen eta Ingemarreko itxieraren aurka manifestazioa deitu dute orain, ostiralerako (maiatzak 10). Arratsaldeko 18:00etan abiatuko da udaletxe paretik. Herri erdiguneko kaleak zeharkatu ostean, frontoian amaituko da mobilizazioa. Pilotalekuan agerraldia iragarri dute langileok.

Duela 10 urte hasitako borroka luzea egin dute langileok, Usurbilgo lantegia itxtearen eta urte guztian izan diren



Ostiral honetan, arratsaldeko 18:00etan abiatuko da manifestazioa udaletxe paretik.

kaleratzeak saihesteko. Galizian, herri honetako plantan ordezkariarik ez duten bi sindikatuak (UGT-ko hiru ordezkariak eta CIGeko bik) zuzendaritzarekin

adosturiko erabakiak eragin ditu azken kaleratzeok. Ingemarreko langileei babesa adierazteko aukera ezin egokiagoa izango da beraz ostiralean.

Laburrean

Erroizpe elkartearen batzarra

Txokoaldeko Erroizpe elkarteak bazkideen urteko batzar nagusia deitu du igande honetarako, maiatzaren 12rako. Lehen deialdia 10:45erako finkatu dute, bigarrena 11:00etarako.

1973an jaiotako bazkaria

Larunbatean (maiatzak 11) batuko dira Artzabalen. Bi hitzordu finkatu dituzte; lehena 13:30ean Bordatxon, bigarrena 14:30ean Artzabalen. Izena emateko: 657687053 (Miren) edo 678582665 (Eli).

1944an jaiotako bazkaria

Duela 75 urte jaiotako herritarrek datoren maiatzaren 12rako antolatu dute Atxega Jauregian biltzeko hitzordua. Izen ematea zabalik dago oraindik: 943362088 (Maria Jesus) 943372316 (Anttoni).

noaqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkartea@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus

Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noaqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,

Ibaxo Orbegozo.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herra!



Luis Aranalde

Eragile nekagaitza

Euskal kulturak eta batez ere euskal musikak asko zor dion Jose Luis Ansorena zendu zen atzo 90 urterekin. Gaur beteko zituen hain zuzen (maiatzak 2a) 91 urte. Mutil kozkorra nintzenean ezagutu nuen Altsasun. Ordurako bera apaiztuta eta ni Humanitateak ikasten. Duela 30 bat urte sendotu genuen gure adiskidetasuna; geroztik ez zen eten lotura hori, atzo arte. Kontzertu batzuk entzun nizkion Andra Mari koroa zuzentzen zuenean. Urtero Urbanen topo egiten genuen kaputxinoek bertan duten etxetxo batean: Jose Luis hiruzpalau lagunekin joaten zen eta gu kaputxino izandako hogeiko bat. Lehengo urtean Iruñean kaputxinoek daukaten erresidentzian bisitatxo bat egin nion. Gorpuzteaz nahiko moteldua zegoen ordurako, baina begirada argia eta irribarrea gozoa. Solasaldi laburra egin genuen.

Donostian jaioa zen 1928an. Txikitandik sumatu zuen kaputxino izateko bokazioa eta 14 urterekin Altsasura joan zen Humanitateak ikastera. 1953an apaiztu zen.

Iruñeko San Antonio izan zuen lehen destinoa. Haur abesbatza sortu zuen bertan. 1960an Zaragozara bidali zuten eta han ere koro bat lantzeko aukera izan zuen. 1966an Errenteriarra etorri zen eta Andra Mari koro ospetsua sortu zuen.

Musika zaletasuna txikitandik zetorkion; bere familian tradizio handia zuen musikak; hain zuzen ere, bere aita Isidro Euskal Herriak eman duen txistularirik handienetakoa izan zen. Donostiako Udal txistulari Bandako zuzendari postua lortu zuen.

Bederatzi seme-alaba izan zituen eta denek egin zituzten musika ikasketak. Bere ustez haurraren heziketa integral batean musika lantzea ezinbestekoa zen.

Arrastorik handiena Errenterian utzi zuen J. L. Ansorenak. Lehen aipatutako Andra Mari koroa sortzeaz aparte, 1973an Musikaste edo euskal musika astea eraiki zuen; horrela euskal konpositoreen obrak herritarrei gerturatzen zizkien. Egungo konpositoreen obrak kantatzen zituen askotan, nahiz eta batzuetan entzuteko

gogor samarrak izan. Armonia berriekin ez baitzeuden ohituta garai hartako belarri musikalak. Handik urtebetera Eresbil Musikaren Euskal Artxiboa fundatu zuen. Ordurako jabetuta zegoen Jose Luis gure herrian azpiegituretan zeuden hutsunez eta horiek bete nahi izan zituen. Batez ere musikaren ondare aldetik ez zuen nahi ezer galtzerik eta horretarako obra guztiak katalogatu, garbitu eta zabaldu nahi izan zituen. Jon Bagues, egungo Eresbilgo zuzendariaren esanetan, Ansorenak ahalegin handia egin zuen goi mailako obrak eta egungo euskal musikagileen lanak gizarteratzeko.

Sari ugari ere jaso zuen bere bizitzan zehar: 2006an Donostiako Orfeoia-EHU saria eman zioten. 2011. urtean, berriz, euskal kultura sustatzen eginko lana aitortu zion Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuona saria emanda. Bere herrian bertan ere jaso zuen aitortza: Errenteriako Udalak eta Eresbil-ek omenaldia egin zioten iaz, 90 urte bete zituen egun berean. Musika Plaza izandakoak Ansorenaren izena darama geroztik.

Bere profila azaltzerakoan Baguesek honela dio: “nortasun irekia zuen, eraginkorra eta ekipoak antolatzeko gaitasun handikoa. Kultur zabalekoa, jakingura handikoa, giza harremanetarako oso liberala. Konfiantza handia ematen zuen eta horrek ekipo lana asko errazten zuen. Benetan lider sendoa izan zen”. Kaputxino ohi bati esan zion: “zuk ez duzu belarri txarra, heziketa falta zaizu”. Horrela animatzen zituen kantatzeko gogoz zeudenak, nahiz eta iaioak ez izan agian abesteko.

Maria Jose Canoren ustez, Ansorena “ameslari ausarta izan zen”. Ez dut aurkitzen definizio egokiagorik.

Joan Sebastian Bachekek esaten zuen berak konposatzen zuen musikak helburu bikoitza zuela: Jainkoari eskerrak ematea eta arimak gozatzea. Adiskide Jose Luis, lan horretan jardun zara zure bizitza osoan. “In paradisu” antifona gregoriano zaharrak dioen bezala, aingeru taldeek jaso zaitzatela musikaren hegaletan eta eraman betiko atsederera eta bakera. Egun handira arte. Goraintziak hor.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Garazi Lizaso Manterola | Itxaso Orbegozo | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | **Luis Aranalde** | Luken Arkarazo

2020an ere, uztailaren 2a jai eguna izango da Usurbilen

Tokiko jai eguna tokiko erakundeak finkatzen du. Usurbilgo jai eguna honenbestez, Udalarri dagokio finkatzea. Aurten bezala, 2020an ere Usurbilgo jai egun nagusia uztailaren 2a

izango dugu, Santixabel Eguna. Hala erabaki zuen udalbatzak aho batez, apirilaren 30ean egin zuten osoko bilkuran.

2020ko egutegia eskutan honenbestez, Usurbilgo jai egu-

na uztailaren 2a izango da, Gipuzkoakoa uztailaren 31n. Eta EAE mailan, Espainiako eta erlijio ospakizunei lotutako festa egunok finkatu ditu Eusko Jaurlaritzak: urtarrilaren 1a

eta 6a; martxoaren 19a; apirilaren 9, 10 eta 13a; maiatzaren 1a; uztailaren 25 eta 31; abuztuaren 15a; urriaren 12a; azaroaren 1a; abenduaren 8a eta 25a.



SALEROSKETA & ALOKAIURAK

G15 GIPUZKOA HIGIEZINA ELKARTEA

Etxebeste Kalea 15 - USURBIL 688 739 733 info@g15usurbil.com



EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

Ziortzaren elkartasun ekimen berri bat

Ziortzako neska-mutil talde batek Caritasen aldeko ekimen bat sustatu nahi du. “Proiektu hau gure gizartean gertatzen diren ez-beharrekin enpatizatzeko eta laguntzeko hasi dugu”, ohar bidez jakinarazi dutenez. Galtzerdiak batuko dituzte. Bilketa kutxak Sutegin, Kiroldegian eta Ikastolan aurkituko dituzue.



Maiatzaren 13an hasi eta maiatzaren 17an amaituko da kanpaina.

Duela hilabete bat, Ziortza Caritasekin harremanetan jarri zen. “Caritaseko Aterpeko langile bat etorri zen guregana, zer egiten zuten azaltzera eta gure zalantzak argitzera. Saio horren harira, Caritaseko ki-deei laguntzeko bilketa bat antolatu dugu. Horregatik, zuen laguntza beharrezkoa dugula adierazi nahiko genizueke”.

Maiatzaren 13tik 17ra bitartean, “kutxa batzuk ipiniko ditugu bertan galtzerdiak biltzeko;

ZIORTZA DBH3KO GAZTEAK

“Kutxa batzuk ipiniko ditugu Sutegin, Kiroldegian eta Ikastolan, bertan galtzerdiak biltzeko. Galtzerdi garbiak eta erabilgarriak, mesedez”

galtzerdi garbiak eta erabilgarriak, mesedez”.

“Animatu zaitezte”

Bilketa kutxa horiek Sutegin, Kiroldegian eta Ikastolan izango dituzue eskura. “Bera, animatu zaitezte gurekin proiektu hau martxan jartzera, edozein laguntza ongi etorria izango da eta. Besterik gabe, mila esker parte hartuko duzuen guztioi!”. Ziortzako DBH3ko gazteek igorri digute informazioa.

Matrikulazio epea ixtear Haur Eskolan

Maiatzaren 10ean itxiko dute 2019-20 ikasturteko matrikulazio epea Haur Eskolan, 2017-19 urte artean jaiotako haurrentzat. Irailetik uztaile-ra, astelehenetik ostiralera, eskaintzen dute zerbitzua, 7:30-16:30 artean. Informazio gehiago: haureskola@udarregi.eus / 943 374 061

Ate Irekiak Lanbide Eskolan

2019-20 ikasturterako matrikulazio garaia ate joka den honetan, Lanbide Eskolaren proiektua eta instalakuntzak barrutik ezagutzeko ate irekien hiru jardunaldi antolatu dituzte egunotarako; maiatzaren 11n eta 18an 11:00etan eta hilaren 15ean 18:00etan. Informazio gehiago: lhusurbil.eus / 943 364 600 / eskola@lhusurbil.eus

Ika-mika

Promesak baino konpromisoak nahi ditugu

Apirilaren 28ko hauteskundeen emaitzak, pentsiodunen mugimenduak dituen eskarien mesedetan izan daitezela espero dugu. Kanpaina barruan ez da partidurik izan, gure mobilizazioen ondorioz, pentsioen arazo baztertu ahal izan duenik.

KPIaren araberako igoera iraunkorra bermatzeko promesak egin dira, are igoera handiagoak zehaztu gabeko pentsio baxuenentzat, sostengarritasun faktorea indargabetzea eta urte gutxitan, Gizarte Segurantzaren defizita gainditzeko neurriak hartzea.

Promesa sorta hau, urrutidago oraindik pentsiodunen mugimenduaren eskariengandik: pentsio duinak bermatuko dituen Sistema Publikoaren defentsa, pentsioen eguneratzea KPIaren arabera gutxienez, gutxieneko 1080 euroko pentsioa, Europako Gutun Sozialak

jasotzen duen bezala, 2011ko eta 2013ko pentsio erreformen neurri atzerakoenak indargabetzea, soldata eta pentsioen arrakalekin bukatzea, BGAE (EPSV) eta pentsio plan pribatuen zerga-salbuespenekin bukatzea.

Baina orain bertan kezkatzen gaituena, zera da, promesa horiek ez direla berehalakoan gauzatzen. Horregatik, EAE-ko eta Nafarroako pentsiodunen mugimenduak mobilizazioekin jarraituko du, eta posible bada, estatuko beste plataformekin batera eskatzen ditugun errei-bindikazio guztiak zehaztu eta ezartzen joan daitezten ahaleginduko gara.

Datorren maiatzaren 26an, udal eta foru hauteskundeak izango dira, Nafarroan autonomikoak. Bai EAEko zein Nafarroako hautagai-zerrendei guretzat eta ondorengo belaunaldientzat, pentsio duinen es-

karien alde egin eta bere jarrera azaldu dezatela eskatuko diegu. Baita jendarte orenen (partikulari pertsona nagusien eta pentsiodunen), bizi baldintzak hobetzeko planak eraiki ditzatela ere.

Europar gero eta gogorrago ari dira pentsio eta babes-sozialerako sistema publikoaren aurka, eta pentsio plan pribatuen alde egiten eta zerbitzu publikoak pribatizatu nahian.

Egoera horren aurrean, hautesle-zerrenda guztiei, bai EAE-n zein Nafarroan, zuzenduko gatzazkie gure eskaerak Europara eramateko konpromisoa har dezaten, honako helburuekin: Pentsio Publiko Duinaren eskubidea, europar herri guztien eraikuntzarako hitzarmenaren funtsezko eskubide gisa bermatzea. Europako Gutun Sozialak behatzen dituen oinarritzko eskubideen aplikazioa exijitzea. Pentsio Plan Pri-

batuentzat salbuespen fiskalak jasotzen diren araudi eta erabakiak ezabatu eta indargabetzea.

Orain arte egin bezala, pentsiodunak astelehenero kontzentrazioekin jarraituko dugu. Datorren maiatzaren 11ko erroka berria daukagu, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako hiriburuetan manifestazio deiak eginaz, Estatu mailan ere aurreikusiak daudenak. Behin eta berriro, gure eskarien alde borrokatzeko prest gaudela azaltzeko eta EAEko eta Nafarroako erakundeek, Estatuak eta Europa mailan ere barnerratu dezaten. Horregatik, maiatzaren 11ko mobilizazioan parte hartzea gonbidatzen ditugu eskubide sozialen defentsaren alde, eta mundu hobeago eta bidezkoago baten alde dauden gizarte talde guztiak.

Hego Euskal Herriko pentsiodunen plataformak.

Bozketa berrien atarian

Denborarik ere ez du eman, apirilaren 28ko Espainiako Gortee-tarako hauteskunde panelak kaleetatik kentzeko. Duela bi igandeko emaitzak irentsi berri-tan datozkigu hurrengo hautes-kundeak. Hitzordu hirukoitza Usurbilen, lau bozka ezberdin emateko aukera izango dute Zubietan. Udal, foru eta Euro-pako hauteskundeak ospatuko baitira maiatzaren 26an, eta Zubietan Herri Batzarra berri-tzeko ere aukera izango dute.

Bost alderdi udal hauteskundeetan

Maiatzaren 26ko bozetan, bost izango dira Usurbilgo udal hauteskundeetan lehiatuko diren zerrendak: EH Bildu, EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Aulki Zuriak.

Izen batzuk jakinak ziren: Agurtzane Solaberrieta Mesa EH Bilduko hautagai nagusia izango da eta EAJ-PNV alderdiko zerrendaburua Josune Urkola Larrarte. Alderdi sozialistak ordea, zerrendaburu berri bat izango du. Francisco Jose Suarez Perez izango da PSE-EEren hautagai nagusia eta egungo zinegotzia, Fermin Orue-Echevarria Iturri, bigarren ageri da zerrendan. Ohiturari jarraituz, PPK ere hautagaitza aurkeztuko du eta honakoan Pascual Plaza Romo izango da alkategaia.

Aulki Zuriak alderdiak ere hautes-zerrenda izango du Usurbilen eta Luismari Ormaetxea izango da zerrendaburua. 2003-2007 legealdian, Usurbilgo alkate izan zen Ormaetxea Eusko Alkartasuna alderdiaren eskutik. Alderdi bera ordezkatu zuen Gipuzkoako Batzar Nagusietan. 2005-2011 bitartean batzarkide izan zen. Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan ez ezik, Espainiako Senaturako hautagai izan da Aulki Zuriak-Escaños en Blanco alderdiaren zerrendan.



Udal, foru eta Europako hauteskundeak ospatuko dira maiatzaren 26an, eta Zubietan Herri Batzarra berritzeko aukera ere izango dute.

UDAL HAUTESKUNDEAK

“Maiatzaren 26an, bost izango dira Usurbilgo udal hauteskundeetan lehiatuko diren zerrendak: EH Bildu, EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Aulki Zuriak”

Egungo udal ordezkari gehienak badoaz

Maiatzaren 26ra arte ezin jakin, alderdi bakoitzak zenbat bozka eta zenbat ordezkari eskuratuko dituen Udalean. Baina jada argi duguna da hautagaitza zerrendak eskutan, egun udalbatza osatzen duten 13 kideetatik erdiak baino gehiagok utziko diola laster udal ordezkari izateari. EH Bilduko 8 kideek, EAJ-ko 4 kideek eta PSE-ko batek osatu dute udalbatza amaitzear den 2015-19 legealdian. PSE-ko bozeramailea izan da Fermin Orue-Echevarria Iturri. Datorren legealdirako zerrendaburu izateari utzi eta bigarren joango da. Francisco Jose Suarez Perez izango da zerrendaburu berria.

EAJ-n aldaketarik ez. Legealdi honetako lau ordezkariak izango dira, EAJ-k hurrengo

hauteskundeotarako osatu duen zerrendako lehen lau hautagaiak; Josune Urkola Larrarte alkategaia, eta berarekin batera, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraioli.

Berrikuntza sakonena sustatuko duena EHBildu izango da. Egungo legealditik hautagai gisa errepikatuko duen bakarra, Jose Mari Iribar Zapaiain zinegotzia izango da. Koalizioak egun dituen gainerrako zazpi udal ordezkarietako hautagaitza zerrendako lehen postuetan ez dira aurkeztuko maiatzaren 26ko udal hauteskundeotara.

Xabier Arregi Iparragirrek alkate izateari utziko dio, eta zinegotzi izateari utziko diote baita, Alaitz Aizpurua Labakak, Xuban Zubiria Elexpek, Jone Urdanpilleta Urdanpilletak, Iñaki Ugarte Agirrek, Irene Garcia Palacios, eta Josune Estella Arranzek. Halere Xuban Zubiria laugarren ordezkari gisa aurkeztu da datozen hauteskundeotarako zerrendan eta Xabier Arregi udal hauteskundeetako zerrendako hamahirugarren postuan. Egungo alkateari ageri da.

7 alderdi foru hauteskundeetan

Udal hauteskundeekin batera, Gipuzkoako Batzar Nagusiak ere berritzeko aukera izango da maiatzaren 26an. Bozka emateko orduan Usurbil Donostialdea eskualdean kokatuta dagoenez, hauek dira bozkatu ahal izango diren 7 hautagaitzak: EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE/PSOE, PP, Ciudadanos, Elkarrekin Podemos (Podemos, Ezker Anitza-IU, EQUO Berdeak) eta Aulki Zuriak.

Usurbildarrak hainbat zerrendetan

Batzar Nagusietarako hautagaien artean hainbat usurbildar topatu ditugu. EH Bildun, Xabier Arregi Iparragirre ageri da ordezkoren artean.

PSE-EE alderdiko 11. postuan Ricardo Crespo Rubio dago. 2011-15 legealdian, PSE-EEko bozeramaile izan zen Usurbilgo Udalean.

Aulki Zuriak-en zerrendan beste bi usurbildar aurkitu ditugu. Luis Maria Ormaetxea Santsiñena (EARekin Usurbilgo alkate izandakoa) eta Pedro Maria Ibarra Iraculis (2003ko udal hauteskundeetan, EAJ-PNVko alkategai izandakoa). Biak independente moduan aurkeztu dira.



Zazpi zerrenda hauek bozkatu ahal izango dira: EH Bildu, EAJ-PNV, PSE-EE/PSOE, PP, Ciudadanos, Elkarrekin Podemos eta Aulki Zuriak.

Izen abizenez osaturiko udal zerrendak

Udal hauteskundeak 2019

EH BILDU

1. Agurtzane Solaberrieta Mesa.
 2. Beñat Larrañaga Urdampilleta.
 3. Lur Etxeberria Gurrutxaga.
 4. Jose Maria Iribar Zapirain.
 5. Aroa Etxeburua Ugartemendia.
 6. Luken Arkarazo Silva.
 7. Oskar Santamaria Picabea.
 8. Itziar Basterrika Unanue.
 9. Ainhoa Arrozpide Landa.
 10. Nerea Goizueta Garmendia.
 11. M. Alazne Olaizola Iparraguirre.
 12. Ana Isabel Eizagirre Sagardia.
 13. Xabier Arregi Iparragirre.
- Ordezkoak:
1. Fatimetou Hamadi Rguebi.
 2. Eugenio Noriega Diez.
 3. Isidra Navarro Del Amo.
 4. Xuban Zubiria Elexpe.

EAJ-PNV

1. Josune Urkola Larrarte.
2. Mirari Azurmendi Sorazu.
3. Carlos Perez Fraisoli.
4. Andoni Atxega San Sebastian.
5. Lourdes Jauregiberri Goenaga.
6. Agurtzane Egibar Artola.
7. M. Jose Ibarboren Lizarazu.
8. Juan Maria Zubeldia Arrieta.
9. Jose Maria Zubiria Eguzkiza.
10. Juan Gorostidi Echeverria.
11. Esteban Goenaga Otegi.

12. Miren Elisabet Ecenarro Ganzarain.
 13. Joseba Iñaki Illarramendi Echabe.
- Ordezkoak:
1. Fernando Arrieta Olasagasti.

PSE-EE/PSOE

1. Francisco Jose Suarez Perez.
2. Fermin Orue-Echevarria Iturri.
3. Maria Arrate Irazabal Oyarzabal.
4. Julio Jaen Moral.
5. Antonia Novillo Ruiz.
6. Mauricio Lorenzo De La Torre.
7. Noemi Puertas Gonzalez.
8. Kristian Garnateo Aranda.
9. Esperanza Quicios Martinez.
10. Angel Morales Rojo.
11. Jesus Novillo Ruiz.
12. Isabel Garcia Martin.
13. Naroa Greño Rivadulla.

PP

1. Pascual Plaza Romo.
2. Antonio Lopez Elvira.
3. Emilio Julian Rodriguez Alcantud.
4. Pilar Valcarce Bardón.
5. Maria Dolores Quiralte Carmona.
6. Jaime Perales Martinez.
7. Ignacio Alberto Cuellar

- De La Torre.
 8. Maria Enriqueta Patau Cremades.
 9. Isidoro Angel Luis Severiano Sebastian.
 10. Enriqueta Rodriguez Portoles.
 11. Francisco Jose Fernandez Rey.
 12. Rosalia Rodriguez De Barrio.
 13. Amalia Rosales Marquez De Prado.
- Ordezkoa:
1. Maria Sanchez Andrada.

AULKI ZURIAK (EB)

1. Luis Maria Ormaetxea Santsiñena*.
2. Maria Cruz Pascual Sanchez.
3. Pedro Maria Ibarra Iraculi*.
4. Esther De Juan Mangas*.
5. Aitor Picabea Lamuedra*.
6. Maria Pilar Casabona Blasco*.
7. Antonio Picabea Sarasola*.
8. Elizabeth Martinez Sanchez*.
9. Andoni Picabea Lamuedra*.
10. Maria Asuncion Lopez Miguel*.
11. Jose Manuel Roteta Echeverria*.
12. Lucia Moreno Diez*.
13. Antonio Garcia Castellon*.

* Independente moduan.



Zubietako herri batzarreko hauteskundeak

Zubietako Herri Batzarra berritzeko prozesua ere abian da. Asteartean itxi zuten hautagaiak aurkezteko epea -ostegun honetan emango dira ezagutzera-, eta egun berean egin zuten hauteskunde egunerako mahaikideen zozketa. Hemen datozen deialdiak:

Maiatzak 9 osteguna

■ Hautagaien aldarrikapena.

Maiatzak 20 astelehena

■ Aurrez botoa emateko aukera. Usurbilgo Udaleko Idazkaritzan, goizeko 08:00etatik 14:30etara.

Maiatzak 26 igandea

■ Hauteskunde eguna. Goizeko 9:00etatik arratsaldeko 20:00etara, Alamandegi etxean.

Hauteskundeei hurbileko jarraipena egingo diegu

Asteotarako ditugun hirtzorduei begira argitalpen bereziak prestatzen ari gara NOAUA!n. Maiatzaren 17an, Sagardo Eguneke gehigarri berezia argitaratuko dugu. Maiatzaren 17an eta 24an, udal, foru, Europa eta Zubietako hauteskundeei buruzko gehigarri bana aldizkari barruan.

Foru hauteskundeetan, zazpi hautagaitza aukeran

Usurbil Donostialdea eskualdean kokatuta dagoenez, hauek dira bozkatu ahal izango diren 7 hautagaitzetako lehen hiru zerrendakideak:

EAJ-PNV

1. Xabier Ezeizabarrena Sainz.
2. Saioa Bandres Moneo.
3. Ianko Gamboa Sanz.

EH BILDU

1. Juan Karlos Izagirre Hortelano.
2. Mirene Begiristain Zubillaga.

3. Ernesto Merino Amiama.

PSE-EE/PSOE

1. Denis Itxaso Gonzalez.
2. Susana Garcia Chueca.
3. Julio Fidel Juan Astudillo.

PP

1. Juan Carlos Cano Aristoy.
2. Alejandro Saenz Muriel.
3. Jose Luis Arrue Pinto.

CIUDADANOS

1. Pedro Ignacio Mendizabal Miguelez.

2. Rocio Galiana Naranjo.
3. Ramiro Vicente Cibrian Uzal.

ELKARREKIN PODEMOS

1. David Oviden Cuello.
2. Arantza Gonzalez Garcia.
3. Paula Almiron Chamadoira.

AULKI ZURIAK (EB)

1. Daniel Lizarralde Aguirre.
2. Amaya Larrea Loran (independente).
3. Luis Maria Ormaetxea Santsiñena (independente).

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

EROSKI / city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Mahaikideak hautatuak, posta bidez bozkatzeko epea ireki da


Apirilaren 28ko hauteskundeekin egin bezala, apirilaren 30eko udalbatzaren osoko bilkuran egin zuten, maiatzaren 26ko hauteskundeetarako mahaikideen zozketa. Ohi bezala, zozketan hautatuak izan diren herritarrei, jakinarazpena udaltzainen bidez helduko zitzairen egunotan. Oraingoan ere 72 herritar hautatu dira. Haietatik 24 izango dira maiatzaren 26an lan egin beharko dutenak, gainerako 48an haien ordezkokoak izango dira; 24 lehen ordezkokoak eta gainerako 24ak bigarren ordezkokoak.

8 hautesmahai egokituko dira maiatzaren 26ko deialdian. Guneotan; Udarregi Ikastolan, Kalezarko Haur Eskolan, Zubietako Lanbide Eskolan, Santuenea Auzo Elkartearen egoitzan eta Aginagako Eskolan.

Adi datozen deialdiei:

Maiatzaren 16ra arte:

■ Posta bidez bozkatzeko eskaera egitea Correosen.



Mahaikide izateko hautatuak izan diren herritarrei, jakinarazpena udaltzainen bidez helduko zitzairen egunotan.

MAIATZAREN 26AN, ZORTZI HAUTESMAHAI

**Udarregi Ikastolan,
Kalezarko Haur Eskolan,
Zubietako Lanbide
Eskolan, Santuenea Auzo
Elkartearen egoitzan eta
Aginagako Eskolan**

Maiatzak 6-19:

■ Posta bidez bozkatea es-

katu dutenei dokumentazioa helaraztea.

Maiatzak 6-22:

■ Posta bidezko bozka bidaltzea Correos bidez.

Maiatzak 10-24:

■ Hauteskunde kanpaina.

Maiatzak 26:

■ Hauteskunde eguna, 9:00-20:00 artean egongo da bozka emateko aukera.

EH Bilduren bilera irekiak

EHBilduk 2019-23 legealdirako aurrekusiak dituen proiektuak aurkeztu eta bertaritzen diren ekarpenak jasotzeko hainbat bilera antolatu ditu. Hezkuntza, euskara eta kultura, ingurumena eta mugikortasunari buruzkoak egin berri dituzte. Asteazken honetan jubilatuekin biltzekoak ziren. Egunotan hitzordu gehiago:

Maiatzak 9, osteguna

■ 19:00 Feminismoaren inguruko bilera Sutegi kanpoaldean.

Maiatzak 18, larunbata

■ 12:00 Gazteekin bilera Sutegi kanpoaldean.



Ostegun honetan feminismoaren inguruko bilera deitu dute Sutegin.

32 zerrenda Europako hauteskundeetan

Udal eta foru hauteskundeekin batera, Europakoak ere ospatuko dira maiatzaren 26an. 32 hautagaitza zerrenda aurkeztu dira guztira. Euskal Herriko alderdi nagusiak, bi koalizio ezberdinetara batu dira; EHBildu Orain Errepublikak izenekoan, ERC eta BNG alderdi katalan eta galiziarrarekin. EAJ Europa Solidarioaren aldeko Koalizioaren baitan, El PI, Coalición Canaria, Demócrates Valencians edota Compromiso por Galiciarekin.

Zerrenda ezagunak

PSOE, PP, Ciudadanos edota Elkarrekin Podemosek zerrenda propioak osatu dituzte. PP eta Ciudadanosen helegiteari erantzunez, Espainiako Hauteskunde Batzordeak Carles Puigdemont, Antoni Comín edota Clara Ponsatí ordezkari katalanei Lliures per Europa (Junts) hautagaitza zerrendan parte hartzea eragotzi zien hasieran; egunotan baimendu egin zaie. VOX edota Falange espainiarraren hautagai zerrendak aldiz, inolako eragozpenik gabe aurkeztu ahal izan dira hauteskundeotara.

Zerrenda ez hain ezagunak

Aipaturiko koalizio eta alderdiok gain, besteak beste zerrendok aurkeztu dira: Iniciativa Feminista, Alternativa Republicana, Centristas Por Europa, Contigo Somos Democracia, PACMA, Solidaridad y Autogestión Internacionalista, Euskadiko Langileen Alderdi Komunista, Foro de Ciudadanos, Partido Humanista, Andalucía Por Sí, Actúa, Compromiso Por Europa, Movimiento Independiente Euro Latino, Izquierda en Positivo, PUM + J, Movimiento Corriente Roja, Igualdad Real, Coalición Verde, Recortes Cero-Los Verdes-Grupo Verde Europeo...

“Gastronomia ez ezik, beste alor batzuk ere jorratzen ditugu Basque Culinaryko graduan”

Axel Nicolas Zerpa, 20 urte, argentinarra da jatorriz baina Eibarre-
ra etorri zen bizitzera 5 urte zituela. Egun, Gastronomia eta Sukaldaritzako Arteak graduko 3. maila ikasten ari da Basque Culinary Center – Mondragon Unibertsitateko Gastronomia Zientzien Fakultatean.

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik?

Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa Eibarreko La Salle ikastetxean burutu nituen. Batxilergo zientifiko-teknikoa aukeratu nuen baina, gradu hau ikasterakoan, berdin dio zer batxilergo mota egin duzun aurretik, dena hutsetik ikasi beharra baitago. Argi dago sukaldaritzak dela nire zaletasun nagusietako bat baina ez bakarrik, mendira joatea ere asko gustatzen zait.

Zergatik aukeratu zenuen Gastronomia gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea BCC-en?



Axel Nicolas Zerpa Gastronomia eta Sukaldaritzako Arteak graduko 3. maila ikasten ari da Basque Culinary Center–Mondragon Unibertsitateko Gastronomia Zientzien Fakultatean.

AXEL NICOLAS ZERPA
“Metodologia berritzailea da. Sektoreko profesionalak hitzaldiak eskaintzen dizkigute, non eguneroko bere esperientzia zein den kontatzen diguten”

Sukaldaritzak haurtzaroko oroitzen zaitzutenekin lotzen dut: nire amona sukaldean lanean, esa-

terako, edo nire ama, egun pertal bat igaro ondoren, nire zain plater gozo batekin. Horrelako bizipen eta esperientziekin lotzen dut sukaldaritzak eta honek bultzatu ninduen, hain zuzen, gradu hau aukeratzera. Mondragon Unibertsitatea aukeratu dut, bestalde, mundu osoan bakarrik delako gradu hau eskaintzen. Gainera, gradu honek gastronomiari buruzko formazioa ematen dizu, baina modu

integralean. Gastronomiari buruz ez ezik, beste alor batzuk ere jorratzen dituzu, besteak beste, industria, hotelak, edo berrikuntza + garapena.

Nola baloratuko zenuke orain arteko bizitako esperientzia?

Hasieran, apur bat gogorra, denbora bat behar duzulako zure burua egokitzeko baina, denbora aurrera joan ahala, gozatzen hasi nintzen. Orain pena sentitzen dut urte eta erdiren buruan bukatuko delako. Azkar pasatu zait, gauza on guztiak nola.

Nola definituko zenuke Basque Culinary Centerren jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Bere metodologia berritzailea da. Klase teorikoak ez ezik, tailerrak ere baditugu non, laneko errealitatea ezagutu dezagun, zerbitzu erreal bat eskaintzen dugun eta praktikak ahaztu barik, jakina. Gainera, sektoreko profesionalak hitzaldiak eskaintzen dizkigute, non eguneroko bere esperientzia zein den kontatzen diguten zuzenean.

“Zure burua ondo prestatzeko aukera eskaintzen dizu”

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Gehien gustatzen zaidana, lehen esan bezala, zure burua ondo prestatzeko ematen dizuten aukera da, bai zerbitzu errealekin, bai tailerren edo jardunaldien bidez. Ekitaldi hauetan ikasle guztiok daukagu aukera parte hartzeko. Berria de-

nez, detaile txiki batzuetan hobetu daiteke, baina poli-poli joaten dira konpon-tzen.

Egin dituzu praktikak?

Bai, lehen mailan Bergarako Lasa jatetxean izan nintzen. Bertako sukaldariei esker, asko ikasi nuen sukaldaritzak tradizionalarik buruz eta pila bat lagundu dit, oinarri bat

behar nuelako ondoren aurrera egiteko.

Bigarren mailan salto handia eman nuen, Larrabetzura joan bainintzen, Eneko Atxaren Azurmendi jatetxera. Esperientzia bezala apur gogorra izan zen, baina merezi izan zuen, asko ikasi bainuen. Apiriletik Bartzelonako Enigma jatetxean ari naiz, bertan abangoardiako sukaldaritzan

sakontzeko aukera izango dut.

Etorriz buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Ez daukat oso garbi, egunerokoan bizitzea gustatzen baitzait. Hori bai, ikasten jarraitzea gustatuko litzaidake, nire jakintza eta bizipenak besteekin partekatzen ditudan bitartean.

Bilketa eraginkorra sustatu eta errausketaren aurka manifestazioa larunbatean Lasarten

Lasarte-Oriako Aire Garbia herri plataformak manifestazioa deitu du larunbaterako (maiatzak 11), 18:00etan Okendo plazatik. “Bilketa eraginkorra bai, errausketarik ez!” aldarripean bideratuko da mobilizazioa Lasarteko kaleetan barrena. Errausketaren aurkako mugimenduko Usurbilgo kideek mobilizazioarekin bat egin eta herritarrak bertaratera deitzen dituzte.

Elkarretaratzea Donostian

Baita maiatzaren 17ko Birziklatzearen Nazioarteko Egunean, Errausketaren Aurkako Mugimenduak eta Donostia Bizirik herri plataformak 19:00etan Gipuzkoako hiriburuko udaletxe ondoan (lekua egunotan zehaztuko dute) elkarretaratzera ere.



Errausketaren Aurkako Mugimenduko Usurbilgo kideek bat egin dute deialdiarekin.

Hiriburuko Udalarri 2020rako egungo %40ko gaikako bilketatik %65era igoarazteko berehalako neurriak hartzea exijituko zaio mobilizazio honen bidez, eta hortik aurrera ehuneko hori hobetzen joatea “gaixotuko gaituen erraustegiari jaten ez emateko helburua jarrita” eta Gipuzkoan 70 udalerrik hartutako neurri eraginkorrak eredu

gisa hartuta. Bost kilometroa erraustegia eraikitzen ari diren artean, Donostia Gipuzkoan pertsonako zabor kopururik handiena sortu eta gutxien birziklatzen duen herrian bilakatu dela gogoraraten dute.

Donostiarrak, “erraustegiari jaten ematen diotenak mugitu edo ez” ohiturak aldatzera, organikoa bereizten hastera

deitzen dituzte, “bestela guk arnastuko dugu guk botatzen dugun zaborra”.

Zubietan aldaketa

Donostiako eta Usurbilgo Udalek Zubietako zerbitzu eta lanak eraginkortzeko lau urterako adostu eta sinaturiko hitzarmenari esker, Zubietako osoko hondakinen kudeaketaren ardura Usurbilgo Udalaren esku geratu da.

Ondorio argi bat izango du honek; Donostia aldeko zubietarrei orain arte zituzten edukiontzia kenduko zaizkie, Garbitxiki berri bat eraikiko zaie, hondakinak atez ate biltzeko aukera eskaintzearekin batera. Zubietako Usurbil aldean atez ateko bilketa sistema indarrean da 2015eko uztailez geroztik.

BAZKIDEEN TXOKOA



*Soinujolearen semea
pelikula*

noaua! euskararen aterpe

NOUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu maiatzaren 8an



urbil



Urbil-Usurbil
KIROL ELKARTEA

Gure taldeaz harro!



Zorionak
txapeladunak!

Orain koparen bila!!!



Benetako
UNEAK

urbil.es

Ostiral honetan Sutegin, 'Soinujolearen semea' filma

Bernardo Atxagaren nobela batean dago oinarritua *Soinujolearen semea* filma. Apirilaren erdialdean iritsi zen zinema areto komertziale-tara. Oraindik ez baduzue ikusi, ostiral honetan aukera aparta duzue. Sutegin emango dute, 20:00etatik aurrera.

David Imazek Euskal Herri-tik erbestera ihes egin behar izan zuen Amerikako Estatu Batuetara. Hilzorian dela, bere lagun zahar baten bisita jasoko du. Francoren diktaduraren azken urteetan, ETako kideak izan ziren biak, baina David-ek herritik alde egin behar izan zuen, kideek arbuaiaturik.

Hiru garai islatzen ditu filmak: haurtzaroa, 20 urte inguru zituzteneko gazte garaia



Jexux Artze Kultur Elkarteak antolatu du filmaren proiektzioa.

FERNANDO BERNUES
"Protagonista nerabearen begiradak iragan kolektibo ilunera zuzentzen gaitu"

eta, azkenik, 50 urte inguru dituzteneko garaia. Azken topaketa horretan, egari aurre

egin beharko diote bi lagunek. "Iragan kolektibo ilunera zuzentzen gaitu artean nerabea den protagonistaren begiradak", Fernando Bernues zuzendariaren hitzetan.

Sarrerak alde zuzenetik eskuratu daitezke Lizardin. Egunean bertan bestela, Sutegiko leihatilan.

Larunbatean, "Zoaz pake santuan" antzezlanaren Sutegin

Bikote bizitza aspergarria duten senar-emazte batzuen istorioa dakarkigu Txalo produktio taldeak. Emazteak, egoera horrekin gogaituta, gizona pozoitzea erabakiko du; baina guztia ez da aterako berak espero bezala, "eta plana hankaz gora joango zaio".

Komedia kutsuko antzezlan honetarako sarrerak Lizardin eskuratu daitezke alde zuzenetik 8 eurotan. Egunean bertan bestela, 10 eurotan, baina Sutegiko leihatilan.



Mikel Laskurain eta Ane Gabarain Sutegin izango dira larunbatean. 20:00etan hasiko da antzezlanaren.

ADMINISTRARI ETA DINAMIZATZAILE LANETARAKO LAN POLTSA

ESKATZEN DA:

- Euskara ondo menperatzea hitzez zein idatziz.
- Ofimatika programak eta teknologia berriak menperatzea.
- Hizkuntza normalkuntzako lanetan eskarmentua: koordinazioa eta kudeaketa, administrazioa, aisialdia, kultura...

BALORATUKO DA:

- Euskara elkarten ezagutza eta lan eskarmentua.
- Harremanetarako gaitasuna.
- Iniziatiba izatea.
- Gida baimena eta kotxea.
- NOAUA!ko bazkide izatea.

Bidali zure Curriculum vitae-a helbide honetara: elkartea@noaua.eus

Oharra: Hau ez da kontratazio deialdi bat. Balizko bajaren bat kubritzeko lan poltsa osatzen ari gara.

Noauak Udajolas-erako lan-poltsa osatzeko, zuzendaria eta begiraleak behar ditu, uztailean lan egiteko.

PROFILA:

- 2 hilabeteko esperientzia
- Begirale titulua izatea / Zuzendari titulua
- EGA edo balizkidea den agiria
- Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Usurbildarrek lehentasuna

Interesatuak:

Curriculum-ak ekarri edo bidali:
 Noaua! Kultur Elkarte
 Bordaberri 3, Usurbil edo
elkartea@noaua.eus

noaua

Euskal Herriko

**3. EGURREZKO
SAGARDO LEHIAKETA**

**1. SAGAR MUZTIO
TXAPELKETA**



Usurbilgo "Herriko Etxea" Sari Nagusia

Egurrezko ontzietan egindako Euskal Herriko sagardo edo muztio lehiaketaren oinarriak:

- 1.- **Euskal Herriko edozein sagardogile edo muztioegilek** parte har dezake, lanbide duenak edo ez, sagardotegietakoak bezala ebterako egiten duenak ere.
- 2.- Sagardogile **bakoitzak 6 sagardo edo muztio botila** ekarriko ditu, denak kalitate berekoak.
- 3.- **Botilak garbiak** izango dira, ez dute inolako arrastorik edo etiketarik izan behar.
- 4.- Botilak **maiatzak 17ko 12:00ak baino** lehenago Usurbilgo **ALKARTASUNA Baserritarren Kooperatibaren egoitzan** entregatuko dira (ordutegia: astegunetan 09:00-13:00 eta 16:00-19:30. Larunbatetan goizean soilik • Atallu Industrialdea 26, 20170 USURBIL, Gipuzkoa • +34.943 361 114 • alkartasuna@usurbil.com)
- 5.- Epaimahaiak lehen daskateta batean, azken dastaketara igaroko diren sagardo edo muztioak aukeratuko ditu, gainontzekoak lehiaketatik baztertu. **Azken dastaketa horretan erabakiko da** zeintzuk diren lehen **sari nagusia, bigarrena eta hirugarrena** eskuratuko duten sagardo edo muztioak. Era berean dastaketa horretara iritsi diren sagardo edo muztio guztien **sailkapena** egingo da.
- 6.- **Sari banaketa** azken dastaketa burutu eta **jarraian** egingo da. Saria eskuratzen duen **sagardogilea edo muztioegilea bertan izango da**, bestela hurrengoari emango zaio.
- 7.- Lehiaketan parte hartzen duten sagardogile edo muztioegileek **oinarri hauek onartzen dituzte**.
- 8.- Lehiaketan bertan inolako **zalantzarik sortuko balitz epaimahaiak berak erabakiko du** egoki deritzona.
- 9.- Dastaketan erabili ez diren sagardo edo muztio botilak antolatzaileen esku geratuko dira.
- 10.- Sariak honoko hauek izango dira:

- **LEHENENGO SARIA:** Usurbilgo Herriko Etxea Saria diren 800€ eta Sariaren Ziurtagiria
- **BIGARREN SARIA:** Alkartasuna Kooperatibaren Saria, 250€ko baxtela sagardogintza materialetan gastua egiteko eta Sariaren Ziurtagiria
- **HIRUGARREN SARIA:** Alkartasuna Kooperatibaren Saria, 100€ko baxtela sagardogintza materialetan gastua egiteko eta Sariaren Ziurtagiria

11.- Lehiaketaren azken dastaketa eta sari banaketa Usurbilen burutuko da, 2019ko maiatzaren 19an 12:30etan izango den 38. Sagardo Egunean, Goiko Plazako oholtzan.

ANTOLATZAILEA:

Sagardoaren Unibertsitatea

LAGUNTZAILEAK:

Usurbilgo Udala, Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba, Usurbilgo Sagardo Egunean Lagunak, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte, Bizi Sagardoa.

38. Sagardo Egunaren atarian

Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak maiatzaren 19rako presetaketa lan betean dira. Atzera kontaketa martxan den honetan, 38. Sagardo Egunerako egitaraua eta kartela plazaratu berri dute. Urteko jai egun nagusira begira jarria da Usurbil. “Kaixo lagunok! Bagatoz aurtengoan ere, hartu zuen agendak eta borobildu maiatzaren 19a! Urtero legez, lanean gabiltza aurtengo Sagardo Eguna borobil eta zoragarri ateradadin! Hemen aurreratzen dizuegu aurtengo kartela eta egitaraua, Usurbilgo plazan elkartuko gara ezta? Animate!” deitu du Usurbilgo Sagardoaren Lagunak taldekoek sare sozialen bidez.

Sagardo botatzaileei deia

Antolatzaileek iragarri duteenez, 41 sagardo postu ipiniko dira. Urtero moduan, sagardoa zerbitzatzeko laguntza behar da. Boluntarioak parte hartzera animatzen dituzte. Ohi bezala, egoki jantzita hilaren 19an goizeko 8:00etarako agertu frontoira.

Egurrezko Sagardo lehiaketa eta muztio txapelketa

Euskal Herriko 3. Sagardo Lehiaketa antolatu da Sagardo Egunaren bueltan. Hilaren 19ko jaialdian ospatuko da sari banaketa, parte hartzeko epea ordea zabalik da. Estreinakoz, muztio lehiaketa ere antolatu da. Informazio gehiago topatuko duzue aldizkari honetako 13. orrialdean.

Xabier Akizu, Sagarrondotik Sagardora ikastaroan

Alkartasuna Kooperatibak antolaturiko ikastaro praktikoko hurrengo saioa, maiatzaren 18an, 9:00-13:00 artean Po-txoenean; “Ilargia eta egutegi biodinamikoa”, Xabier Akizuren eskutik.

Izen ematea bideotatik egin:



41 sagardo postu ipiniko dira maiatzaren 19ko Sagardo Egunean.

SAGARDO EGUNA

“Euskal Herriko 3. Sagardo Lehiaketa ospatuko da Sagardo Egunean. Berritasunik ere izango da aurtentreinakoz, Muztio Lehiaketa ere antolatu da. Informazio gehiago aldizkari honetako 13. orrialdeko iragarkian topatuko duzue”

943 361 114
alkartasuna@usurbil.com
alkartasuna.eus

Elkarretaratze berezia

Azken ostiralaz gain, Sagardo Egunez ere ospatuko da hila-bete honetan euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Maiatzaren 19an, 13:00etan Mikel Laboa plazan egokituko duten karpagunean. Urtero moduan hitzordu gehiago izango dira Ernai Usurbilek antolaturiko Sagardo Eguneko gune honetan.

38. Sagardo Eguna, egitaraua

Maiatzak 19, igandea

■ 11:30 Sagardo Egunaren Irekiera. Baserriko, “Euskal Sagardoa” Jatorri Izendapen duena eta Gipuzkoako elkar-teko sagardoa dastatzeko aukera. Honetaz gain, pintxo aukera zabala.

■ 12:00 Egurrezko Sagardoaren Lehiaketa, Muztio Lehiaketa.

■ 14:30 Sagardo dastaketaren itxiera.

■ 18:00 “ElektroPatxaranga”. Antolatzailea: Sagardo Egunaren lagunak.

“Terraza garaia, Euskal Sagardo garaia”

“Terraza garaia, Euskal Sagardo garaia” kanpaina aurkeztu dute aste honetan Donostian. Egitasmo hau Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak, Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak, HAZI Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzak sustatu dute.

Bertako sagarrarekin egindako sagardoak

Euskal Sagardoa Jatorri-Deituraren bereizgarria duten sagardoak %100 bertako sagarrarekin egindakoak eta kalitate bermea dutenak dira, eta txapel edo lepoko sagar gorria-



rekin bereizten dira.

Asteartean aurkeztu zen promozio kanpaina honetan Gipuzkoako 32 taberna eta jatetxek hartuko dute parte, ostalaritza establezimenduen terrazetan Euskal Sagardoaren kontsumoa sustatzeko asmoz.

Edertu zaituz!

Inar ESTETIKA

DHA berehalako
beltzaranketa
5 minututan, %100 naturala
solarium bonuak ere
munalurra 2, Usurbil 943 571 680
www.enarestetika.com



Ane ILEAPAINDEGIA

Artzabal



JUBILATUENTZAT AUKERA ONENA

Artzabal baserria 626 603 600

UDABERRI BEGIRA JARRI ZURE AZALA PREST

- AURPEGI GARBIKETA
- GORPUTZ GARBIKETA
- PRESOTERAPIA
- PEDIKURA • MANIKURA,
- BETILEEN TINTAKETA IRAUNKORRA
- MIKROPIGMENTAZIOA
- LASER IODO • DEPILAZIOAK

INTZA

ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Egurditan irekial
Nagusia 8, Usurbil tel: 943 36 36 41



Elexpe ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

TXANPU ETA LOZIO BITAMINADUNA Eskola adinerako berezia

- Iturburuko ur mineralarekin
- Kontserbagarririk gabea
- Belaunaldi berriko formula:
Te arbolez, "Neem"-ez, Kamamila
destilatuz eta Bisabobolez indartua



Zorlen
aurkako lozio
ORGANIKOA



ileapaindegia
mistoa

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951

Andatza Eguna, iruditan



Andatza Eguneako argazki gehiago topatuko dituzue web orrian, noaua.eus/galeriak/ estekan.

USURBIL BATEGINIK



EAJ-PNV.EUS



MIREN JOSUNE URKOLA LARRARTE

USURBILGO ALKATETZARAKO HAUTAGAIA



EMAN BOTOA



Txirikorda, belaunaldi arteko auzolanaren emaitza

Gazteak eta helduak elkarlanean txirikordatu dira azken hilabeteotan. Bi urte eta erdi barru inguru, Ugartondoko urbanizazio berrian kokatuko den belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioaren proiektua auzolanean diseinatzen aritu dira urte hasieratik, parte hartze saio ezberdinetan. Proiektuaren ertz ezberdinei buruz erabakitzen. Gero erabakiok udal talde eta teknikariek berretsi dituzte. Amaitu ez den baina orain arte egin duten lanketa aurkeztu zuten maiatzaren 4an Sutegin.

Xabier Arregi: “Guztion artean egindako proiektu bat izan behar du”

Pozik agertu zen Usurbilgo alkatetea proiektuak herri barruan nahiz herritik kanpo izan duen harrerarekin. Herritik kanpo, hedabide ezberdinek, baita jubilatuz zein zaintza elkarrekin deitu baitute Usurbilera, Txirikorda proiektua ezagutzeko jakinminez. Proiektu honek bi kolektiboen, gazteen eta adinekoen beharrei erantzun die: gazteen emantzipazio beharrei eta bizimodu erosoagoa, isola-



Usurbilgo Udalak, Hiritik At Kooperatibak eta LZB Arkitekturako ordezkariak Txirikorda partehartze prozesuaren berri eman zuten aurreko larunbatean.

MADDI EGIZABAL

“Adin bakoitzak bere arazoak eta bere beharrak ditu. Horiek guztiak mahai gainean jartzeko nola elkartu garen ikustea asko gustatu zait”

mendutik urrun lagunduagoa izateko adinekoen beharrei. “Proiektu bakar baten bidez bi behar horiei erantzun genieziaiekeela ikusten genuen”, zioen alkateak Sutegin.

Bi kolektibo hauekin izandako hartuemanetan egitasmoak harrera ona izan zuela ikusita, “konplizitateak sortzen” hasi ziren. Argi zuten Udalak proiektu hau ezin zela

erakunde barrutik garatu, “gu guztion artean egindako proiektu bat izan behar du. Hau gorpuztuko bada, guztion arnasa behar du”. Proiektu honen oinarria jada finkatzen, sortzen ari diren arren, gogorarazi zuenez “ez da burutu eta hemen badugu eginkizun handi bat; orain arte egindakoa hoztu eta ahaztu ez dadin lanean segitzea”.

Oraindik bi urte eta erdi edo geratzen dira. Tarte honetan, “bide orri bat sortu beharko dugu eta proiektuari pixkanaka indarra eman denon artean”.

Maddi Egizabal: “Elkarrekin elikatu eta eraikitzeo aukera emango du”

Inposatutako bizimodu bakar

horretatik beste bizimodu batera igartzeko aukerak ilusionatuta gogotsu parte hartu du Maddi Egizabalek Txirikorda definitzeko parte hartze prozesuan. “Guretzat gurasoan etxetik ateratzerakoan alternatiba da”, nabarmendu zuen aurreko astean Sutegin egin zen ekitaldian.

Egitasmoaren izaera komunitarioa du gustukoena Txirikordatik. “Norbere esperientzia, jakintza... Elkarrekin elikatu eta eraikitzeo aukera emango du, eta hori herriari transmititzeko”.

Urtarrilaz geroztik bideratu duten belaunaldi arteko elkarlana interesgarritzat jo zuten, “adin bakoitzak zer behar, arazo dituen ikusteko. Horiek guztiak mahai gainean jartzeko nola elkartu garen ikustea asko gustatu zait”.

Era berean, beldur modukoa ere sortu zaiela zioen Maddi Egizabalek, era asanblearioan edo komunitarioan funtzionatzea ez dela erraza izango eta beharrezkoa iruditzen zaio, etxebizitza komunitarioan biziko denak alde aurretik aurreikusia dagoen formakuntza jasotzea.

“Orain da garaia apustua egin eta aurrera egiteko”

Lagun baten eskutik izan zuten Txirikorda proiektuaren berri Itziar Illarramendik. “Komunitate txiki batean, adin beretsuko jendea, interes berdinak... ze ondo!”. Baina gero jakin zuten belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa izango zela. “Gure arteko elkarbizitza erraza ez bada, belaunaldi artekoa zer ote da?” galdeztzen zuten Illaramendik. Beharrak hain zuzen, batzen ditu proiektu honek txirikordatzen dituen bi kolektiboak. “Gazteek behar asko dituzte, gurasoan etxetik ateratzerakoan. Guk ere bai, bat oso urrutu bizi delako, besteari

etxea handia geratu zaiolako, bestea bakarrik geratu delako, bakardadea baita gure kolektiboaren gaixotasun handiena etorkizunean...”.

Horregatik zioen, “orain da garaia apustua egin eta aurrera egiteko. Udalaren aldetik ikaragarritzko oparia da proiektu hau. Hutsetik abiatu ginen, denetarik egin dugu. Altxor izugarria iruditu zait parte hartzea. Gустura ibili naiz, ilusionatua”, adierazi zuen.

Hasieran zuten ikuspedia zeharo aldatuta heldu zen Itziar Illarramendi larunbateko aurkezpenera. “Kooperazioa, solidaritatea,

auzolana, ezaugarri horiek herraminta bezala hartuta, ni belaunaldi arteko elkarbizitza komunitarioaren alde”.

Karlos Renedo: “Bi kolektiboen ikuspuntuak osagarriak direla ikusi dugu”

Usurbilgo Udalarekin batera, parte hartze prozesua Hiritik At Kooperatibak dinamizatu du. “Guretzat oso proiektu polita izan da, berritzailea”, zioen kooperatibako kide Karlos Renedok. Oroitzen zuten nola hasieran, parte hartze prozesuan espazio komun batzuk sortu eta erabaki batzuetarako bi belaunaldiak bereiztea aukeretako

bat izan zitekeela. Baina “unitate bat sortu nahi bagenuen, argi genuen hobeto zela hasieratik erabakiak eta eztabaidak mistoak izatea”.

Egindako apustuarekin asmatu dutela zioen. “Oso ondo joan dira saioak eta bi kolektiboen ikuspuntuak osagarriak direla ikusi dugu, baliagarriak izan dira baita besteen beharrak, nahiak ezagutzeko”.

Herritik kanpo ere oihartzuna izan du Txirikorda egitasmoak. Bai hedabideetan eta horrekin batera, “proiektua hainbat lekuetan aurkeztea eskatu digute, erronka polita izan da”.

Txirikorda, fintzen segi beharreko aurreproiektua

Orain arte diseinatu dena, nolabait esatearren, etorkizunean, garatzen, edukiz hornitzen, martxan diren beste esperientzia batzuetatik ikasiz, forma ematen joan beharreko aurreproiektu bat da. Oraindik orain, bi urte eta erdi edo igaro beharko dira, Ugartondoko urbanizazio berrian kokatuko den etxebizitza eraikia eta bizitzera sartzeko moduan ikusteko. Ordura arte aipatu moduan, beste hainbat urrats administratibo eman eta erabaki gehiago hartzen segi beharko da; orain arte bezala, tokiko erakundea eta herritarrek eskutik helduta, txirikordatuta. Komunitatean.

Orain arteko emaitza nagusiak informazio eta irudi panel desberdinetan bildu dituzte, baita etorkizuneko etxebizitza berri hau nolakoa izango den erakusten duen bideo batean. Sutegiko erakusketa aretoan dituzue ikusgai.

Txirikorda proiektuaren ezaugarriak

- Etxebizitzon izaera: publiko-komunitarioa.
- Nori zuzendua: emantzipazio fasean diren gazteei eta dependentziarik gabeko adineko pertsona autonomoei.
- Kokagunea: Ugartondoko urbanizazio berrian, Ugartondo



Informazio panelak Sutegiko erakusketa aretoan dituzue ikusgai.

baserri ondoko orubean.

Sarrera baldintzak: Baldintza orokorrak

- Errolda: beharrezkoa izango da 3 urtez Usurbilen erroldatua egotea.
- Belaunaldi arteko oreka: adin arteko oreka bilatuko da. Eskaearen arabera portzentaia aldagarria izan daiteke.
- Generoa: neurri zuzentzaileak aztertuko dira etorkizunean beharrezkoa izanez gero.
- Formakuntza: Txirikorda proiektuan etxebizitza aukera bat izateko Udaletik eskainiko den formakuntza egitea ezinbestekoa izango da.

Gazteentzako baldintza espezifikokoak

- Sarrera baldintzak: 18-30 urte artean izatea.
- Egonaldia: mugatua.
- Errenta: diru sarreren arabe-

rakoa, diru sarreren %15a. Diru sarrera finkorik ez dutenen kasuan solbentzia ekonomikoa justifikatu beharko da, eta gutxieneko errenta bat ezarriko da gastuak kubritzeko.

■ Jabetza: ezingo dute etxebizitzarik jabetzan izan.

Adinekoentzako baldintza espezifikokoak

- Sarrera baldintzak: 60 urte edo gehiago izatea.
- Egonaldia: mugagabea, beti ere dependienteak ez diren artean.
- Errenta: pentsioaren araberakoa.
- Jabetza: jabetza izatekotan, konpromiso bat sinatu beharko dute eta urtebeteko epea izango dute beraien etxebizitzak erabileratu duela justifikatzeko, hau da, hutsik ez dagoela justifikatzeko. Justifikaziorako bideok egongo dira: errolda agiria,

alokairu kontratua, Alokabiden izena emanda egotea...

Etxebizitzaren ezaugarriak

- Espazio komunitarioak: egongela, sukaldea, jangela, garbiketa gela eta erabilera anitzeko gela.
- Etxebizitza pribatuak: apartamentu pribatuak, sukalde, bainugela, egongela eta logelarekin. Guztira 16.

Solairuka

Eraikinaren diseinua bertako erabiltzaile izango diren gazteen eta adinekoen beharretara eta bereziki izaera komunitario horretara egokituta dute. Hala, espazio komunitarioak eta eremu pribatuak bat egingo dute eraikin berean. Ez soilik eraikinaren behealdean, baita etxebizitzaren artean ere.

- Semisotoa: egongela komunitarioa, garbiketa gela, trastelekuak, instalazio gelak, erabilera anitzeko gela.
- Behe oina: sukalde eta jangela komunitarioa, komunak.
- Lehen oina: bi logelako 2 etxebizitza, logela bakarreko 4 etxebizitza.
- Bigarren oina: bi logelako 2 etxebizitza, logela bakarreko 4 etxebizitza.
- Hirugarren oina: terraza komunitarioa, bizilagunentzako terraza, bi logelako etxebizitza 1, logela bakarreko 3 etxebizitza.

Komunitatean bizitzeko konpromisoak

Barrura begirako jarduerak

- Zer nolako jarduerak burutu daitezke etxeko biztanleentzako?
- Afari tertuliak, barne zaintzarako saioak, bizilagunen gaitasunak partekatzea, barne kontsumoa antolatuzko jarduerak...

Antolaketa guneak

- Batzarren maiztasuna, batzorde zehatzak, Udalarekin hartuemanak, arduren banaketak...

Gune autogestionatua izan behar da. Etxeko komunitateak egin behar du egunerokotasunaren kudeaketa; gune nagusia Batzarra izango da; arlokako batzorde eta lantaldeak osatuko dira; aurrez formakuntza erabiltzaile berriekin...

Elkarbizitzarako arauak

- Espazio komunen kudeaketa, elkar zaintza...
- Komuna eta pribatua dena ondo bereizi; garbitasuna mantendu;

ordutegiak eta isiltasuna; balorazio saioetan parte hartu;... Irizpide orokorrak: konpromisoa, adostasuna eta errespetua.

Kontsumo kolektiboak

- Planteatu liteke zenbait kontsumo kolektiboak izatea? Zeintzuk eta zer irizpiderekin? Irizpideak: KMO eta ekonomia zirkularra; energia jasagarria; trukerako gunea edo tabloia; kontsumo partikularra eta kolektiboa ondo zehaztu...

Kanpora begirako jarduerak

- Zer nolako jarduerak burutu daitezke kanpora begira? Zer nolako gaiak dira landu daitezkeenak?
- Tailerrak, tertuliak edo zine forumak arrakastatsuak direnean irekiak egin; Txirikorda esperientzia partekatzeo hitzaldiak; jangela irekia...

Proiektu honen sustatzaileak:

Usurbilgo Udala, Hiritik At Kooperatiba eta LZB Arkitektura.

Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



udajolas

2019

udaleku irekiak

Udajolas Usurbilen erroldatutako 4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko haur eta gazte-txoei zuzendua dago. Uztailaren 3an hasi eta 30ean amaituko da eta ordutegi hau izango du: 09:30-13:30

Gehienezko plaza kopurua 200 umekoa izango da.

Ordainketa LABORAL KUTXAKo kontu honetan egin behar da, eta garrantzitsua da **HAURRAREN IZEN-ABIZENAK** adieraztea:

3035 0140 34 1400025811

Izen emateko epea:

maiatzaren 13tik 23ra (biak barne)

Lekua: Noauaren egoitzan (Bordaberri kalea 3)

Izen emateko ordutegia: **10:00-11:00 eta 16:30-18:30** (larunbatean itxita)

Kuota: 84€

Famili ugaria: 68€ (Familia Ugariaren Txartela edo Familia Liburuaren kopia ekarri behar da).

Aurkeztu beharrekoa: Izen-emate orria, ordainketa-agiria eta gizarte segurantzako txartelaren kopia.

Udajolaseko guraso bilera **ekainaren 13an** (osteguna) izango da Sutegiko auditorioan, arratsaldeko 17:00etan.

OHARRA: Behin izena eman ondoren, ez da dirurik itzuliko.

noaua



Helduen egoitzetako langileen protesta

Greba astea izan dute LAB sindikatutak deituta Gipuzkoako helduen egoitzetako langileek. Bizi duten egoera prekarioa salatzen askoz lehenagotik dabilta ordea. Protesta Usurbila ekarri zuten udaberriko oporren aurretik, Artzabalera.

Maite Peña Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte politikako foru diputatuak eskaintzekoa izan baina azken orduan bertan behera geratu zen hitzaldiko gunearen atarira. Zabaldutuzen pankartako aldarriak egoki laburbiltzen du bizi duten egoera eta eskatzen dutena; lan hitzarmen duina Gipuzkoa osoan sektore honetan lan egiten duten 5.000 bat langileentzat. Elkarretaratzea Peñari zuzendua zegoen, Gipuzkoako helduen egoitzetan gertatzen ari diren arduradun nagusitzat jotzen dutelako.

“Gipuzkoako Foru Aldundiako egoera honi konponbidea eman behar dio. Bere esku dago berak sortu duen egoera konpontzea”, adierazi zion NOAUA!ri Ane Sarriegi Etxabe, LAB sindikatuko soziokomunitario sektoreko Donostialdeko arduradunak.

Egoera prekarioa bizi dute langileok; jardunaldi par-



Hainbat langile, duela hilabete Artzabalen eginiko elkarretaratzean.

LAB SINDIKATUA

“Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku dago berak sortu duen egoera konpontzea”

tzialak, ordutegi amaigabeak... Eta langileen ratio oso baxuak. Ondorioz, lan karga eta erritimo oso altuak dituzte, “ezin dute behar bezalako arreta eskaini, langileak gaixotu egiten dira”. Hitz gutxitan, “bizi duten egoera oso gogorra da”, dio LAB sindikatuko ordezkariak. Lan hitzarmen duin horren baitan kokatzen ditu sindikatu abertzaleak eskaerok; “kontratazio gehiago, partzialak ez izatea, ordutegi finkoak, ehuneko ehuneko jardunaldian aritzea langileak...”. Halako gizarte zerbitzu bat enpresen bidez kudeatua izatea onar-

teztintzat jotzen dute, “enpresa hauek beraien interesen alde egingo dute beti”, gogorazten du LAB-ek. Zerbitzu publikoa izan behar duela galdegiten dute.

Bi urteko gatazka

2017tik daramate lan hitzarmen duin baten eske. 2017an osatu zuten mahai negoziatzailea eta urte hartako irailean bildu ziren azkenekoz. Urte haren amaieran mobilizatzen hasi ziren, “ez baikenuen ulertzen mahai negoziatzailea zergatik ez zen elkartzen”. 2018ko azaroaz geroztik greba egiteari ekin zieten; hasieran hilero egun solteetan. Aurreko aste osoan ere greban izan dira, “egoera zailtzen ari zela eta norberak bere interesen alde egiten zuela ikusita, eta ez langileen interesen eta zerbitzuen alde”.

Gara egunkariren egoera larriari buruzko solasaldia

Laguntza beharrean da Gara. Egoeraz ohartarazteko eta abian duen harpidetza kanpainaren berri emateko solasaldia antolatu dute ostegun honetan (maiatzak 9) 19:00etan Potxoenean. Gararen ordezkari batek parte hartuko du.

UEU-Jakin Jardunaldirako izen ematea irekitzean da

“Maitasuna politikoa da” izena du aurtengoan Usurbilen ospatuko den UEU-ren udako ikastaroen baitako Jakin Jardunaldiak. Uztailearen 11n eta 12an ospatuko da hirugarren edizioa. Usurbilgo Udalak, Jakinek eta UEU-k antolatutako hitzordurako matrikulazioa maiatzaren 13an zabalduko da. Izen ematea osatzeko edo informazio gehiagorako: ueu.eus



Uztailearen 12an eta 13an egingo da.

Langileon borrokaren alde



Maiatzaren 1eko Langileen Egunaren harira, elkarretaratzea egin zuten Ernai Usurbilek deituta bezperan, apirilaren 30ean Mikel Laboa

plazan. Kapitala hautsi eta bizitzari eusteko deia plazaratu zuten, “Gora langileon borroka. Euskal gazteria lehen lerrora!” aldarripean.

Umeen pilotako finalak



Joan den larunbatean pilotako finalak jokatu ziren Usurbilgo frontoian. Benjamin, alebin zein infantilek hartu zuten parte txapelketan. Igande ho-

netan, arratsaldeko 17:00etan Pagazpek Berria Txapelketako kanporaketa jokatu du Paz Ziganda elkartearen aurka Atarrabiako pilotalekuan.

“Urtean zehar eginiko lana erakutsiko dugu”

TXIMELETA TALDEAK GIMNASIA ERRITMIKOKO TOPAKETA ANTOLATU DU

Maiatza ekitaldiz gainezka dator Usurbilera. Andatza Eguna eta Sagardo Eguna urteroko derrigorrezko zita badira ere, maiatzaren 11 eta 12rako Oiar-do kiroldegian izango da zer ikusirik. Tximeleta Taldeak gimnasia erritmikoko topaketa antolatu du Oiartzun, Donostia, Pasaia eta Usurbilgo gimnasten artean. Erakustaldiaren nondik norakoak ezagutzeko Veronica Garcia, Itxasne Telleria eta Mirene Telleria herriko taldeko entrenatzaile eta bakarlariekin izan da NOAUA!.

NOAUA! Tximeleta taldearen topaketa leku desberdinetan izan da orain arte, nahiz eta gehienetan Oiartzunen izaten den. Aurten Usurbilen izango da, zer dela eta?

Veronica Garcia: Urtero aldatzen da lekua. Kiroldegiak libre dauden ikusi behar da, eta horren arabera erabakitzen da. Normalean Oiartzun edo Usurbilen egiten da, bi herri horietan bakarrik daudelako tapizak. Tximeletako gainontzeko taldeek gela txikietan entrenatzen dute non ez den altuera eta espazio nahikorik izaten aparatuak botatzeko.

Itxasne Telleria: Kiroldegi txikietan dabilzan gimnastei kostatzen zaie txapelketetan aritzea, ez baitaude ohituta gisa horretako lekuetara. Pilotarekin baldin badabilta, tira zerbait egin daiteke, baina uztaia bezalako aparatu dinamikoarekin zailagoa da. Orduan, askorentzat lehen aldia izango da aparatua hainbat metroko altueran jaurtiko dutena.

Planteamentu aldetik, erakustaldia izan ohi da. Aurten ere horrela izango da edo txapelketa modura ulertu behar da?

V. G: LH3 eta LH4ko umeentzat erakustaldi bat izango da, ez



Veronica Garcia, Itxasne Telleria eta Mirene Telleria Tximeleta taldeko entrenatzaile eta bakarlariekin izan gara eta asteburu honetako topaketari buruzko xehetasunak eskaini dizkigute.

VERONICA GARCIA

“LH3 eta LH4ko umeentzat erakustaldi bat izango da, ez neurketa. Zaharragoen kasuan, ordea, txapelketa. Sari banaketa egingo da amaieran lehen hiru postuak lortu dituzten talde eta bakarlariak zehazteko. Gainontzekoek diploma eskuratuko dute”

neurketa. Zaharragoen kasuan, ordea, txapelketa. Sari banaketa egingo da amaieran lehen hiru postuak lortu dituzten talde eta bakarlariak zehazteko. Gainontzekoek diploma eskuratuko dute.

I. T: LH5 eta LH6koak mazoeekin eta xingolarekin arituko dira eta DBHkoak ere berdin. Egia da DBHko ikasle gutxi hartzen dutela parte topaketa honetan, beste txapelketa

batzuetan dutelako burua eta abar.

Herrian zenbat talde eta bakarlari daude eta zein adinetakoak?

I. T: 10 bat talde eta beste horrenbeste bakarlari gara.

Mirene Telleria: Bakarlari asko gaude. Gimnastak handitzen doazen heinean kirola uzten dute ikasketak direla medio. DBHn talde gutxi egoten dira, bakarrik geratzen gara eta taldeak sortzeko zailtasunak izaten ditugu. Pentsa txapelketetan ere elkarren aurka aritzen garela, eta nire kasuan nire ahizparen aurka ere bai [Mirene eta Itxasne ahizpak dira].

Zuek entrenatzaileak izanagatik ere, gimnasta izaten jarraitzen duzue. Bi paperak egingo dituzue igandean, edo hurrekin baino ez zarete arituko?

I. T: Ez, guk ez dugu parte hartuko. Talde pila bat ditugu hau-

rrekin eta tapizera atera aurretik gurekin egoteko beharra daukate. Nik lau talde baino ez ditut, baina lan handia denekin beroketak egin eta dantza ensaiatzea.

V. G: Nik hamar talde ditut, eta horietatik 9k igandean hartuko dute parte. Pentsa horrek zer-nolako lana suposatzen duen ez bakarrik beraiekin egoteko, baizik makilatzen eta aurreprestakuntza lan horretan.

M. T: Nik bi talde ditut eta bakarlari bat.

“Maila bakoitzeko hurrek Queen-en abesti batekin egingo dute dantza”
NOAUA! Urtean zehar egingako lana herrian erakusteko urtero antolatzen duzue kurtsu amaieran erakustaldia. Aurten ere antolatuko duzue edo asteburuko ekitaldiak izango dira azkenak?

Itxasne Telleria: Ekainaren 12 edo 14an izango da ziu-rrenik. Asteartean edo ostegunegunegun izango da, arratsaldeko 5ak aldera. Ordena jarrita daukagu jada eta denon artean egingo dugun dantza modernoa ere martxan daukagu.

Mirene Telleria: Aurten Queen izango da dantza modernoa gaia. Maila bakoitzeko hurrek aipatu taldearen abesti batekin egingo dute dantza eta gero denon artean euskararen aldeko dantza ere egingo dugu.

Veronica Garcia: Hilabete baino ez da falta denboraldia amaitzeko eta amaiera hori ahalik eta borobilena izateko lanean ari gara orain-txe.

Euskararen aldeko koreografia

NOAUA! Horrelako txapelketek antolaketa handia eskatzen dute. Taldean zenbateko pres-tutasuna erakutsi dute marrazain lanak egin eta tapizak prestatzeko?

Itxasne Telleria: Antolaketa lan hori Tximeletako zuzendari-tzak egiten du. Guk alde horretatik entrenatzaile funtzioa baino ez dugu.

Veronica Garcia: Epaimahaiko kideak entrenatzaile titulua eta epaile titulua dutenak baino ez dira izaten. Lan hori ezin du edonork egin. Marrazain lana normalean taldeko edonork egiten du, gimnastaren bat tapizetik atera den neurtzea baita euren lan bakarra. Taldeko gimnasta pare batek egingo dute lan hori, infantilek edo.

Tximeleta taldea zenbait herri eta auzotako neska-mutilek osatzen duzue. Baduzue harremanik horiekin?

V. G: Nik uste gehienok eza-gutzen gara. Entrenatzaileok topaketetan eta txapelketetatik ezagutzen gara. Ordezkapenak ere egiten ditugu beharrezkoa denean, beraz, beti gaude kontaktuan.



Maila bakoitzari aparatu bat dagokio, beraz, ikuskizuna anitza eta oparoa izango dela adierazi digute Tximeleta Taldekoek.

TXIMELETA TALDEA

“Euskararen aldeko koreografia gimnasta guztien artean egingo dugu, sari banaketaren aurretik”

I. T: Tximeletak udajolas antolatzen du eta modu horretan herri askotako gimnastak elkartzen dira. Normalean, hala ere, eskolen artean ez dago harreman handirik.

Larunbat eta igandean kirol-degira hurbiltzen direnek zer nolako lanak ikusteko aukera izango dute?

V. G: Urte osoan zehar eginiko

lana erakutsiko dugu. Maila bakoitzari aparatu bat dagokio, eta beraz, aniztasuna egongo da. Lan horiez gain, Tximeletako talde guztien artean osatu dugu euskararen aldeko koreografia bat, eta gimnasta guzti-guztion artean egingo dugu ekitaldiaren amaieran, sari banaketaren aurretik.

I. T: Urtero egiten dugun planteamentua da euskararena. Badira bizpahiru urte euskararen txantxangorriaren harira lanean hasi ginela eta urteroko ohitura bilakatu da.

Oharra: Elkarrizketa osoa noaua.eus web orrialdean topatuko duzue.

Senior neskak Gipuzkoako txapeldunak



Usurbil K.E.-tik zorianak helarazi nahi dizkiete senior nesken taldekoek. Gipuzkoako txapeldunak ditugu Urbil-Usurbil K.E. taldekoak. Zorianak!

Usurbil Kirol

Elkartearen zozketak
Bruño etxearen mariskada sas-
kia: Saritua, Josune Iparragirre.



Urdairen 2 lagunentzako

otordua: Saritua, Juli Agudo
Infante. Zenbaki saritua 7.434.



Futbola Haranen

Maiatzak 11, larunbata

■ 10:00 Alebin neskak:
Udarregi 6B-Udarregi 5
■ 18:30 Jubenilak,
Kopako zortzirenak:
Usurbil F.T.-Oiarzun

Maiatzak 12, igandea

■ 11:00 Futbol Eskola 2010:
Usurbil F.T.-Billabona
■ 18:00 Kadete neskak:
Usurbil F.T.-Zarautz K.E. B

Eskubaloia Oiardon

Maiatzak 11, larunbata

Eskola Kirolak

■ 9:30 Alebin mutilak:
Udarregi 5B-Urnieta 5B
Udarregi 6B-Urnieta 6B
■ 10:45 Infantil neskak:
Udarregi B-Jauja
■ 11:45 Infantil mutilak:
Udarregi B-Udarregi A
■ 19:30 Jubenil mutilak,
Gipuzkoako Kopako finala:
Usurbil K.E.-Tolosa

Usurbil K.E.

■ 13:00 Jubenil neskak:
Usurbil K.E.-Bidaso

Mendi orientazio ikastaroa

emakumeentzat

Patri Espinarrak gidatuta eta Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak antolatuta, maiatzaren 11tik ekainaren 15era, larunbatero, 9:30-13:30 artean. Lehen eta bigarren saioak Potxoenean egingo dira, gainerako lauak mendian. Izen-ematea: parekidetasuna@usurbil.eus 943 377 110.

Miriam Arrillaga, Grabniko txapeldun

Miriam Arrillaga Beloki Grabni lehiako palako txapelduna dugu Miren Larrarte talde kidearekin batera, maiatzaren 4an Biriatur Arabaren aurka jokatu zuten finala irabazi ostean.



ETXEBIZITZA

Salgai

Pisu salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berrituta. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrenatzeaz. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo banean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebi-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

zitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60.

Alokairuan

Etxebizitza alokairuan, Santuenean. Berritu berria, eguzkitsua, lasaia. Bi logela, dena kanpora begira. 663055659

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegia edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil.

Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

MOTORRA

Salmenta,
garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Telefonoa: 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zerbitzaria behar da Lasarteako ta-

berna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak administrari-dendari baten beharra dauka, berehala lanean hasteko. Interesatu bazuade, deitu 943 361 114 edo bidali zure CV alkartasuna@usurbil.com

Finantza eta aseguru-etako kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguru-etan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: Profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrek emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrek emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gortuzaldiak@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegiaren. info@restaurantearatz.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandinno@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00etatik - 17:00ak bitartean. Tel. 603 315 126



Zorionak Ani!
Apirilaren 29an
6 urte bete
zenituen!! Beraz,
muxu erraldoi
bat zuretzat!!



Zorionak Markel!
9 urte egin dituzu
maiatzaren 2an.
Asko disfrutatuko
zenuelakoan,
muxuak ama eta
aitaren partez.



Urtero zure etxearen
zorion agurrak hain fin
bidali ondoren, iritsi da
zure txanda.
**Urte askotarako
eta muxuak lagun
partez!**



Zorionak Julen!
Maiatzaren 10ean
7 urte handi!!!
Muxu potolo bana
etxearen partez!!



**Zorionak
Gabrielle
eta Arhane!**
Maiatzaren 6an
5 urte bete
zenituzten. Muxu
handi bana
etxearen partez!

OHARRA: 2019ko maiatzaren 17an aterako dugu hurrengo astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: maiatzaren 13a astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Interna, externa edo orduka. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak, interna, externa, orduka... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorria, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin pertsona helduak zaintzen. Ospitalean, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzateke. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsaldez. Urtariletik aurrera.

671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila nabil. Interna bezala. Tel. 677 256 701.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan egin nahi dut. Interna edo externa bezala. Pertsona helduak zaintzen, supermerkatuan, tabernetan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztua (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo per-tsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauetan, externa bezala, orduka edo aste-burutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, errefe-

rentzia onekin. Telefono zenbakia: 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauetan. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeko garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak

edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, ospitalean, baserrian. 632090146

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

BESTELAKOAK

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrik jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonen arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. Tel. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

AMC markako eltze bat nahiko berria daukat salgai. Tel. 943 363 201

Oxelo markako patinete bat galdutu dugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 telefonora. Iزارo

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Ingeleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Udarregi Ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutz Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskatel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 09 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 10 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 11 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 12 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 13 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 14 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 15 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Maiatzak 09 - Maiatzak 19

Osteguna 16 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 17 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 18 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 19 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda maiatza

10 ostirala

- **Manifestazioa** Ingemarrek kaleratzen eta itxieraren aurka. 18:00etatik aurrera, Udaletxetik frontoiraino.
- **"Soinujolearen Semea"** pelikula, 20:00etan Sutegin. Sarrerak: 5 euro. Lizardin alde zurratik eta egun berean lehiatilan.

11 larunbata

- **Mendi orientazioari buruzko ikastaroa**, 09:30ean Potxoenean. Izen-ematea: parekidesuna@usurbil.eus edo 943377110.
- **"Zoaz Pake Santuan" antzezlan** Sutegin. Sarrera: 10 euro egun berean, lehiatilan. Aurretik 8, Lizardin.

12 igandea

- **Baserritarren Eguna** 11:15etik aurrera, hamaiketako, bertso saioa, herri kirolak, herri bazkaria... Antolatzailea: Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba. Laguntzaileak: Usurbilgo herri-kirol taldea eta Usurbilgo Udala.

Igande honetan ospatuko da Baserritarren Eguna

San Ixidro Eguneko ospakizunak aurreratu egin dituzte aurten. Igande honetarako egitarau hau prestatu dute:

Maiatzak 12, igandea

- 11:15 Hamaiketako frontoian.
- 12:30 Bertso saioa Ane Labaka eta Sebastian Lizasorekin.
- 14:00 Bertso-bazkaria Artzabal Baserrian. Txartelak salgai Alkartasun eta Artzabalen maiatzaren 11ra arte. Prezioa: 25 euro.
- 18:00 Giza proba 3.800 kiloko Usurbilgo Harri Handiarekin.
- Emarri, 22 emakumezko taldea.
- Txoriherri, 4 + 2 talde mixtoa.



Sebastian Lizaso eta Ane Labaka kantari arituko dira igande eguerdian.

- Lasuen, 4 + 2 talde mixtoa.
- Antolatzailea: Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba.
- Laguntzaileak: Usurbilgo herri-kirol taldea eta Usurbilgo Udala.

Lanbide Eskola barrutik ezagutzeko aukera

Lanbide Eskolaren proiektua eta instalakuntzak ezagutzeko bi hitzordu: Larunbat honetan 11:00etatik aurrera eta maiatzaren 15ean asteazkena, 18:00etan. Biak, Zubietako eraikinean.

- Informazio gehiago: lhusurbil.eus / 943 364 600 / eskola@lhusurbil.eus

Zubieta, Udaberri Festaren atarian

Egitarau zabala osatu du Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkarteak maiatzaren 18tik 24ra. Gurasoei zuzenduriko kontzertu meditatiboarekin abiatuko dute hilaren 18an 11:00-12:15 artean Kaxkapen. Esterilla eraman behar dela ohartarazi du antolakuntzak.

Datozenak

Suizidioaren inguruko hitzaldia eta proiektzioa

Suizidioarengatik izaten diren heriotzen inguruan dagoen isiltasun tabua apurtu eta guztion artean komunikazioa eta hausnarketa sustatu. Hori da astelehenerako antolatu duten ekitaldiaren arrazoi nagusia.

"Bideginekin batera, Usurbilgo Udalak gune bat sortu eta dokumentalean agertzen diren testigantzekin bat eginez suizidioarengatik gertatutako heriotzen ondoren berriro ere bizi daitekeela transmititu nahi du", udal iturriek aditzera eman dutenez.

Gai honen inguruko *Volver a vivir* (Sara Bote, 2013) dokumentala proiektatuko dute eta ondoren hitzaldia eskainiko Bidegineko kideek.

Maiatzak 13 astelehena

- 19:00etan, Sutegin.
- Bidegineko dinamizatzaileak: Izaskun Andonegi eta Txema Ormazabal.
- Dokumentala: gaztelaniaz.
- Hitzaldia: gaztelaniaz eta euskaraz.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Saila.



txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ANTXETA
taberna-jatetxea

- eguneko menuak
- ogitartekoak
- plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Patri
Patriña jatetxea

- bazkariak EGUNERO
- afariak, ostegunetik larunbatera

© 943 362725 • © 688 690 361

kanpokaldeko dekorazioa!

URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

Gure Elkartea
Santueneako zaharren egoitza

**MAIATZAREN 10EAN
3. URTEMUGA FESTA!**

19:00tan

ELEKTROPAPO ZUZENEAN!

Pintxo Pote BEREZIA!

ZAHARREN EGOITZA

Azaldu eta dastatu!

686 55 41 45 Santuenea 11, Usurbil -
f @GureElkarteaSantuenea

31 ETXEBIZITZA BERRI UGARTONDON



Pertsonalizatu zure etxebizitza nahi duzun modura



Armairuak



Sukaldea



Pertsonalizazioa

943 30 29 20

www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaude

Maiatzak 18
18:00

Inaxio Perurena
harrijasotzailea

Eneko Saralegui
aizkolaria

Amets Arzallus
bertsolaria

Jose Angel Sarasola
esataria (*locutor*)

Dantzariak eta
trikitilariak

Kupelak
Saizar Sagardotegia



Urbil

Herrikirolak



Benetako
UNEAK

urbil.es